

zakilixut

© Olariagak



Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

ATZEKOZ AURRERA



Merkatuko haragirik sanoena

Pittilingorri 'sex-shop' kateak beste denda bat zabaldu du Gasteizko erdigunean, Dato kalean

Pornoko hizketaldi laburrak euskaraz aditzea baino ez da falta. Osterantzeko guztia badu: deskarga elektrikoak botatzen dituen bibragailua; aluaren irudiko

gailuak, giza haragia baino samurragoak; DVDak, nondik norako guztiak zehaztasun osoz ikusteko; elbarrituentzako kabinak; eta animalia eroak ere bai, baina horiek ez abere irinek

eraginda. Kabiari izeneko generoaz gozatzea ere badago... Baina hobe horren berri zerbitzariak berak ematea. Gasteizko betiko kalerik onenaren bukaeran dago, Daton, tren gel-



KARLOS BIGURI

Ezkerrean, bezero bat Pittilingorri sexu dendako bideo aukerari begira. Eskuinean, Iñaki Olaizola, saltokiko arduraduna.

tokiaren plazan. Pittilingorri du izena, eta arduradunak dio akaso hurrengoari Pottobeltz jarriko diola.

Iaz egun batzuetan aldizkari pornoak erakustea debekatu zuen Udalaren hiri tradizionalean da, baina Iñaki Olaizola jabeak ez du erreparatu berezirik ikusi. «Ez dut uste Gasteiz beste edozein toki baino atzerakoia goa denik sexu kontuetan», esan digu.

Donostian eta Oiartzunen ere badu sexu denda. Gasteizen «merkatua» bazela ikusirik, lokal egokiaren bila jo zuen, mota honetako dendetara sekula ere sartu ez den biztanleriaren %90a helburu: erdialdean bai, «baina ez kaletik igarotzen diren guztien ikusgai»; aterpearen modukoa bai, «baina ez ilun morbosoa horietakoa». Sexu kontuan, nor-zer bere tokian.

Eta gailu horien guztien gainean, dendaren inaugurazio ekitaldiaren erdian, denok telebista monitoreari begira, *Bertatik bertara* saioak grabatutako irudi benetan zuzenak ikusi nahian. Pare bitxia, zinez, Andoni Aizpururen argazki erotiko erraldoiaren eta panpina koloredunen gainean!

Zabaltze festatxoa bukatu eta kasu hauetako benetako ordua dator: *sex shop* batetik irteteko unea. Bizilagunek ez dute leihotik dendaren aurkako oihalik eskegi, baina emakume zahar batetik zeharka begiratu digu, serio-serio. Ezin kexatu daitezke, baina, denda abegikor honek zarata gutxiago sortuko baitu ondoko *bakalao* dantzalekuak baino... eta samurtasun handiagokoak, seguru. Haragi puska sano saila okela gaixoen garai honetarako.

Zakilak nonahi, aluak 'herabeti'

135 metro koadro dira, haragi grina oro asetzeko prest. Zakilek—kolore guztietakoak baina tamaina bakarrekoak—beste ezerk baino gehiago luzitzen dute. Aluak, berriz, *herabeti*, eta arreata osoz bilatu beharra dago.

